

Ebazpena 2016ko ekainaren 29koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena; AUDIT Batzordearen kide batzuk kargutik kentzea eta Batzordearen kide berriak izendatzea xedatzen duena.

13/2012 Legearen, ekainaren 28koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa, 8.3.d) artikulua xedatze duenari jarraiki, Zuzendariari dagokio ebaluazio-batzordeetako kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Aholku Batzordeak proposatuta.

Horregatik, 2016ko ekainaren 28an Aholku Batzordeak egindako bileran adostutakoaren arabera eta esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki, eta aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ondoren zehazten diren AUDIT Batzordeko kide hauek kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea:

Batzordeburua: Emilio Diez de Castro

Batzordekideak: Francisco Javier Monforte, Jose Luis Casillas, M^a Carmen Navarro

Ikaslea: Aitor Marañon

Bigarrena.- Aholku Batzordeak proposatuta, AUDIT Batzordeko kideak izendatzea:

Batzordeburua: Jose Joaquin Mira


Batzordekideak: Nekane Arratibel, María Paz Álvarez eta Jaime Sagarduy.

Ikaslea: Inhar González Gutiérrez

Idazkaria: Eva Fernández de Labastida

Hirugarrena.- Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 29a.



EVA FERREIRA GARCÍA
Unibasq-eko zuzendaria